

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Abenduak 21, 88. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**JON GOIKOLEA,**  
arrasatear bat  
Japoniatik  
bisitan etorria

**Nik  
nahi  
dut...**




Joseba



**A R R A S A T E**  
**K I R O L A K**

Konizeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

# DENDARABA



# MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.

Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Krisialdiz krisialdi

**M**unduko ekonomia krisialdi sakonean aurkitzen delarik, zer ezin genezake esan euskaldunari buruz? Estatu mailan, lehen postuetako aintzindari izatetik sailkapenaren leku ilunetara jaitsi gara, azkeneko urteotan. Euskadiko burni meatzetatik gaurreguneko azpiegitura zabalera, hamaika gorabehera bizi behar izan ditu euskal industriagintzak. Arrasateko industriaren mikrohistoria Euskadikoaren ispilutzat har genezakeelarik, gurean emandakoa estrapolagarria dugu gainerako lurraldeetara.

Gerra osteko giroak bultzada galanta eman zion euskal egoera ekonomikoari. Nolanahi ere, monopoliotako politikak eraginda, enpresen arteko lehiarik eza dela eta, ustez garapen zen sasi-aurrerakuntza hartan itzulera zaileko zulo beltzera erortzen ari zen gure industri ahalmena. Europako atea ireki zirenean, aieneka hasi ginen euskaldunok, gainera zer letorkigukeen asmaezinean.

Arrasate, Deba Garaia eta Euskadi osoari ez datozkio urte onak; sarri, otsoaren alegian jazotakoa ez ote zaigun gertatuko pentsatzen dut. Hainbeste aldiz entzun dugu sasoi ahulei buruzko hitzaldia non ohitu egin garen oihu abisatzailerak. Eta ondoriozko hondamena erabatekoa

izan liteke. Gastu-indizeak berean darrai, aurrezketaren gehikuntzarako joerarik nabaritu gabe. Presio soziala inoiz baino gogorragoa den une hauetan, giza kolektiboak kontraesanetara jotzen du, oharkabea... ala kontzientzia osoz.

Gure enpresek inoiz lehia-abantailarik izan dutela suposatuz -eta hori gehiegi suposatzea da- guztiz galdu dute egun. Oinarrizko industriagintzaren kinka larriari, hainbat sektoretako ezinegona gehitu behar zaio. Gezurrezko paradisuatik garbitokiko oinazeetara igaro gara. Loak hartu zituen gure enpresariak eta baita politikoak ere. Ahaztu bide zen, merkatu librean lehiakide direnak enpresak direla eta inoiz ez estatuak. Enpresek ez zuten kanpoko ereditutik ezer ikasi ahal izan eta konturatu orduko trena abiatua zen. Erlojuaren kontrako lasterketan ari gara orain. Egitura astun eta korapilatsuek eragozten duten erabaki bizkorren bila dihardute, galdutako denbora erarik hoberenean berreskuratu nahi duten enpresariak. Ikerketa eta garapeneko inbertsioak, pertsonalaren egokipena, punta-puntako teknologia, salmenta kostuen murrizketa... hots, produktibitate eta errentabilitatea positiboki eragin ditzaketenak dira, besterik gabe, aztertu beharreko faktoreak.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**UGARAN  
jatetxea**

Garagaritza auzoa - 1/787658 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

**IBARRA Garajea S.A.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



**ETXE-  
-AUNDI**

Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**EKI, HB eta Gestorei**

Gorostiaren aldeko iragarkiak direla eta txalo beroa Natura eta bertako zuhaitz autoktonoak, desagertzeko arriskuan, zaindu eta defendatzeagatik.

Baina suspenso-porrot oso-oso gure herriko monumentu antzinakoe-na zaintzen eta defendatzen ez jakiteagatik. Bere horma zaharretan zuen iragarkiak, eta kolaz gainera, pegatu dituzue. Jakin horrelako monumenturik, XIVgarren hasierakoa alegia, bat besterik ez dagoela Gipuzkoa guztian.

Ez al zarete ari kontraesan haundi batean erortzen zuhaitzak defendatzen eta herriaren obra nagusiak hondatuz?

HB, Amnistiaren aldeko Batzordea, eta abar: EKIRi esandakoak zuentzat ere balio duela uste dut; zuek bait zarete parrokiako hormak zikinkiro erabiltzen dituzuenak Kultura, Historia eta besteen askatasuna eta ardura mesprextatuz. Parrokiak berak ere, ez ditu horma horiek bere iragar-kietarako erabiltzen. Gizatasunera eta


herritasunera deitzen dizuet honoko honetan. Errespeta parrokiako hormak, errespeta besteen gogoia ere. Eskerrik asko eta Gabon zorionsuak guztiori.

Jose Maria Astigarraga  
(Parrokoa)

**Kaleak lokatzez!**

Lokatza artean pasatu dugu astea! Ez da hainbesterako, baina asteazkenean Takolotik kaleraino oinez etortzea tokatu zitzaidan, eta kamino-bazterretik joaten zipristinduta geratu nintzen. Kamioi handiak ibili dira joan etorrian, lur karriotan, eta normala izango da; baina ez ote dago beste modurik lan horretarako, edo hondatu nahiz zikindutakoa garbitzeko? Kalean horrela, eta basotik apeak ekartzen dituzten kamioiei multak jartzen dizkiete, errepidea zikintzeagatik!

Oinezko batek



**Arrasate Press paper birziklatuan**

Irakurle batek baino gehiagok galdetu izan digu -eskatu ere beste zenbaitzuk- ea zergatik ez genuen paper birziklatua erabiltzen Arrasate Press egiteko. Egia esan, lehenengo galderak etorri arte pentsatu ere ez genuen egin posibilitate horretaz, baina berehala hasi ginen gaia aztertzen.

Merkeagoa izateaz gain, paper birzikaltuak natura, geroz eta zigortuago dagoena, bere onera ekartzeko ekarpen txikitxo bezain inportantea egiteko aukera ematen digula konturatu ginen. Horregatik Arrasate Press paper birziklatuan inprimatuko dugu aurrerantzean. Zuri esker, irakurle, gu ere ikasiz goaz. Eskerrik asko.

**Eguberri on!**

# Ze afari prestatuko duzu Gabon gauerako?



**Paulina Hernandez**  
(Etxekoandrea)  
Dagoena. Beharbada oilaskoa, bildotsa ahal bada. Normalean baino espezialagoa bai behintzat.



**Arantxa Artzamendi**  
(Etxekoandrea)  
Seguru asko bixigua. Lehenengo aza, gero bixigua eta gainean konpota eta intxaur saltsa.




**Arantxa Aiestaran**  
(Etxekoandrea)  
Ez dakit bada, arrain zopa eta gainerako ere arraina edo.



**Carmen Benaguillo**  
(Etxekoandrea)  
Oraindik ez dakit, baina, txarrikume apurren bat, beste bildots apur bat eta horrela.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORIATZA**

## Memesa

**79 42 22**


## KOPIOTXOA

*Fotokopiah*  
*Planu-Erreproduzioak*  
*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
**ARRASATE**

## NAROKI

**QDI MAILAKO  
BITXITEQIA**



**ERLOJUTEQIA**

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Flektzitate (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Debe Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkariea .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55



**21 OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Alai. "Yo soy esa", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Ghost", 10.30etan.
- Euskal liburu eta disko azoka, Sebero Altuben, arratsaldeko 6.30etatik aurrera, 24era arte.
- Arrasate Musikalen kontzertua, Juan Bataiatzailearen parrokiari, arratsaldeko 8etan.
- "Joselu Anaiak" taldearekin dantzaldia, herriko plazan gaueko 11etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**22**

**LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai. "Yo soy esa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Ghost", 5, 7.30 eta 10.15etan.

**Kirol Agenda**

**Ziklo-krosa**

• • •

- Aretxabaletako Nazioarteko 21. Kriteriuma, igandean eguerdiko 12.15etatik aurrera.

**Herri kirolak**

• • •

- Zaldibarko frontoian, larunbatean eguerdiko 12.30etan aizkolariak, eta 1ean Gibitegi harrijasotzailearen saioa.

**Igeriketa**

• • •

- Musakolako kiroldegian, igandean goizeko 10etatik aurrera, Santamaseko XI. sariaren frogak.

- Kalejira, "Lore Gazteak" eta Arrasateko dultzainaria, goizeko 9.30etan.
- Fruitu, barazki, hegazti eta gazten lehiaketa azokan. Ardi-abere lehiaketa eta nekazal makineriaren feria Nafarroa Etorbidean, goizeko 10etan.
- Iturengo Tuntturroak, "Incansables" txaranga, dultzainari, trikitalari eta koplarietara kalejirak goizeko 11etan.
- Herri bazkaria kiroldegian, eguerdiko 2.30etan.
- Bertso saioa, Lopategi, Lizaso, Egaña eta Mañukorta Amaian, arratsaldeko 7etan.
- Txerriaren zozketa 12etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**23**

**IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Yo soy esa", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Ghost", 5, 7.30 eta 10.15etan.

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**24**

**ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 5etan.
- Novedades: "Ghost", 5etan.
- Txorontzi, goizeko 11etan, eta Olentzero, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

**25**

**ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Muerte entre las flores", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

**26**

**ASTEAZKENA**

• • •

- Zinea: Alai "Presunto inocente", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Muerte entre las flores", 10.15etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, Santa Marina.

**27**

**OSTEGUNA**


• • •

- Goizean zehar Sebero Altuben Sebastopoleko Titiriteroen tailerrak.
- Zine-kluba: "Monjas a la carrera" pelikula, Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## Liburuak

### • Krisalida

Agindutako trilogiaren hirugarren alearekin datorkigu urrestillarra. Hasiera nahasi samarrari, testu luze, arin eta barreari parada frango ematen dionak jarraitzen dio. Baita, gaur eguneko Euskal Herriari buruz gogoeta egiteko abiapuntu bat ere. Pako Aristik idatzitakoa, Erein argitaletxea, 1990ekoa.



## Erakusketak

• AEDk antolaturik, *Denden eta zerbitzuen Publizitatea, zergatik ez hau ere euskaraz?* lemapean erakusketa izango da. Abenduaren 23an, arratsaldean, Sebero Altube plazan, denda eta zerbitzu ezberdinek jai hauetan bidaltzen duten publizitatearekin erakusketa egingo da, euskara hutsean daudenak, elebietakoak edo erdaraz bakarrik argitaratzen direnekin.

**ETA HAU,  
ZERGATIK EZ  
EUSKARAZ?**



## SANTAMASAK 90

### Astebururako jai giroa herrian

Santamasak direla eta, asteburu honetarako denetarik prestatu dute "Santamas Komisioak"koek. Egitaraua luzeegia izateagatik programaturako guztia berri ematerik ez dago, beraz, garrantzitsuenera mugatu behar. Larunbatean, egun nagusian, goizeko hamarretan fruitu, barazki, hegazti, eta gazten lehiaketa, erakusketa, eta salmenta izango da Azoka plazan. Nafarroa etorbidean berriz, ardi-abere lehiaketa eta nekazal makinariaren feria. 11etan, herriko plazan artisau lanen erakusketa irekiko da, eta ordubate geroago herri-kirol saioa Zaldibarren. 2.30etan herri bazkaria kiroldegian, bazkatoste aiaiaz. Zazpitan "Alai"n trikilariak eta bertsolariak: Lopategi, Lizaso, Egafia, eta Mafukorta. Gauerdian, ohi denez, txerriaren zozketa egingo da.

Igande arratsaldean Eguzki taldearekin dantzaldia izango da, eta astelehenean, ohiurari jarraituz, Txoronpio eta Olenzero ibiliko dira ume eta helduen gustorako.

### • Jubilatuen eskulanak

Datorren osteguna 27arte, Abaroako liburategian Abaroa, Santa Marina eta Musakolako jubilatuek egindako eskulanen erakusketa zabalik egongo da. Erakusketa hau herritar guztientzat arratsaldero egongo da zabalik, 4etatik 8etara bitartean.

### • Argazki erakusketa

Udaletxeko arkupeetan argazki erakusketa irekiko da igandean, hilak 23, ASA argazkizale taldeak antolaturik. Olalde argazkilari gazteiztarrak bere lanak erakutsiko ditu, abenduaren 23tik 31ra bitartean. Bilduma 25 argazki osatuko dute, *Londresarako joan-etorria* izenburupean. Erakusketa arkupeetan kokatzearekin bi helburu lortu nahi dituzte ASakoek: erakusketetarako ezohizko lekua aproban jarri, jendearengana hurbilduaz, eta aldi berean jendea arte honetara hurbiltzeko bideak bilatu nahi izan dira.



## Mendia

• Besaide mendizale elkar-teak, datorren urterako eski kanpaina antolatu du, urtarrilaren 12 eta 13an nahi duten arratsatear guztiei Formigalera joateko aukera ematen zaielarik. Besaideko bazkide direnentzat bidaiaren prezioa 7.400 pezetakoa da, gainontzekoentzat 8.000koa. Prezio horretan, bidai, alojamentua pentsio erdian, eta erremonteen erabilera sartzen dira. Izena eman edo informazio eskatzeko astelehenean asteazkenean bitartean, arratsaldeko 6,30etatik 7,30etara norbait izango da Besaide Elkartearen, 79 84 74 telefonoan.



## Gestorak

• Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak, Eguberrietan presoan aldeko ekintzak burutuko ditu. Larunbatean, txerriaren zozketarako txartelak eta material gehiago saltzeko mahaiak jarriko dira. Postulazioa ere egingo da. Gabon egunean, Olenzeroa bukatu eta gero, Sebero Altube plazatik manifestaldiari ekingo zaio. Hilaren 28an berriz, Herriko martxako autobusak aterako dira gauerdian. 31ean goizeko 1.30etan preso, errefuxiatu eta kanporatuen ohorez brindisa Seberon.

“Kooperatiben mundua bere baitan itxitako zerbait iruditu izan zaigu beti eta, behar bada, arazo ekonomikoak, finantzeruak eta teknikoak ere ulerpen hau zalantzan jartzen dute. ELAren ustez, etorkizunera begira, aldaketa garrantzitsuak sartzeak, dagoeneko sartzen hasiak direnak, kooperatibisten sindikaltzea ekarriko dute era logiko eta naturalean. Baina ez da nahikoa guzti hau guk esatea, beharrezkoa bait da, aitzitik, lehenik eta behin afektatuek eurek ere hala ikustea. Aipatutako norabidean, ez litzateke ona zuzendaritzatik ere aldakuntza tekniko administratiboak bakarrik bultzatzea, langilegoaren ordezkari izari dagokion guztia erabat izoztuta utziaz”.

(Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak Deia egunkarian)

“SS-77 talde arrasatearra 88ko udazkenean sortu zen. Entsaioak eta 89an maketa bat grabatu zuten Donostiako Musikarten. ‘Egia esan ez genuen komertzializatzeko atera, egiten genuena entzuteko baizik. Baina irrati eta tabernetatik zabaldu zen eta nahiko arrakasta izan genuen’ adierazi digu Patxi kitarrajoleak”.

(Lorea Agirre kazetariak Euskaldunon Egunkarian)


**Nola ikusten dituzu sindikatuak kooperatibetan?**

Une honetan kooperatibetan ez dago sindikaturik, baina ez ezin delako. Gure estatutueta hauteskunde-tara sindikatu moduan aurkezteko atea zabalik dago. Baina kooperatibak eratuta dauden bezala, ez du merezi.

Kooperatibok gure eztabaidak edo arazoak konpontzeko beste era bat dugu, eta kooperatibak dauden tokietan, sindikatuak ez dute indar handirik izaten. Une honetan kooperatibetan, aldi baterako langile asko dago eta horiek, sindikatuarekin eta sindikatu bezala jokatzeko normala da.

Kooperatibak eratuta dauden eran denok botu bat daukagu. Batzuk, erantzunkizun altuko karguetan daudenean, informazio eta botere gehiago izaten dute. Zentzu honetan, planteamendu honen aurrean, sindikatuak euren esperientziak irtenbideak eman ditzakete. Kooperatibetan ez dago jabe bat eta hark dituen langileak, hori sindikalismoaren ohizko bidea izango litzateke, baina bai ikuspegi desberdinak. Adibidez, gerenteak edo egunero makina aurrean dagoenak ez dute ikuspegi bera. Harreman hori paretsuagoa izan dadin, sindikatuak asko egin dezakete.

Sindikalistek asko ikasiko lukete kooperatibistenganatik, eta alderantziz ere. Ahaleginak egin behar ditugu hurbiltzeko, ezagutza sakon batera iritsiz. Azkenik Euskal Herrian, sindikatu zein kooperatibek helburu bera dugula esango nuke: Euskal Herria hobetu eta aberastasuna lortu. Horregatik elkartu eta eztabaidatu beharra dago.



Jose Mari Larrañaga, kooperatibista.

**EYA**

**ELEKTROTRESNAK**

Iturriotz 21, tfnoa: 79 03 84  
Erdiko kale 27, tfnoa: 79 13 79

E · S · T · U · D · I · O  
I · N · T · E · R · I · O · R · I · S · M · O · A

- **Proiektuak**
- **Diselnuak**
- **Obra-Zuzendaritza**
- **Berrikuntzak**
- **Erakuskion eraketa (Eskaparatismoa)**
- **Anagramak**

Garibal 3 bis,  
Tfnoa: 77 01 44  
ARRASATE



## Bergara

Joan den astelehenean, Bergarako Udalak aurtengo azken osoko bilkura burutu zuen. Beste hainbat gairen artean, aurtengo aurrekontuaren zenbait aldaketa onartu ziren, antena parabolikoen kokapena erabakiko duen arautegiaren onarpena, eta Udaletxea informatizatzen arduratuko den pertsona baten kontratazioa. Zentzu horretan, informatika ekipamendua eskuratu ahal izateko Bergarako Udalak 12 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen

Onartutako gaiak alde batera utzirik, esan behar da Askapenak eta Amnistia Internacional-ek aurkeztutako mozioak ez zutela zinegotzi gehienen oneritziarik jaso, ondorioz lehena erretiratu izan zelarik eta bigarrena onartu gabe gelditu. Bukatzeko, aipatu PNV, EA, EE, eta PSOEn botuak Jose Luis Elkorro alkateak, Udaleko ordezkariaren batek herriko presoak bisitatu zezan egindako eskakizunari ezetza eman ziotela.



## Elgeta

Elgetako Udalak pasa den asteartean burututako plenoan, Asentzion mendi parkea egiteko proiektua onartu zuen. Onarpen hori, pleno luze zein eztabaidatu baten ondoren iritsi zen, HB eta PNVren desadostasunaren aurrean, kandidatura independentearen baiezkua jaso zuelarik. Plenoak bi ordutako iraupena izan zuen eta, bertan proiektuaren aurkakoen eritziak entzun ziren. Zentzu horretan, Jose Angel Mikeo, Angiozarko alkateak, bere auzotarrek proiektu horren aurrean zeresana bazutela adierazi zuen, eta Asentzioko proiektuaren prozesua ez dela behar bezalakoa izan, angiozartarrei eritziarik ez zitzaielako eskatu. Angiozarko alkateaz gain, EHNE sindikatuko ordezkaria Maite Aristegi eta zenbait ekologista talde ere, aurka agertu ziren, batez ere arrazoi ekologikoetan oinarrituz.

Elgetako alkateak, Patxi Basaurik, proiektuaren aldeko argudioak eman zituen, eta azkenean, independenteen aldeko 5 botoek HB eta PNVren aurkako 4 botoak gainditu eta Asentzioko mendi parkearen proiektua onartu zuten.

## Aretxabaleta

Larunbatean hasi eta astelehena bitartean, Aretxabaletan urteroko liburu azokaren edizio berria burutuko da. Azoka, Mitarte plazako lokal batean egingo da, goizez eta arratsaldez egongo delarik zabalik. Azoka honetan, euskara hutsezko liburu eta diskoak aurkitu ahal izango dira.

Azokaz gain, Aretxabaletako kultur munduan beste zereginik ere izango da, ikastaro sorta bat ere antolatu delako: larrugintza, eskulan orijinalak, eta euskal erromerietako dantzak. Ikastaro hauetan parte hartu nahi duten guztiek, izena abenduaren 24ean baino lehen Beinkeko lokalean edo liburu azokan eman beharko dute.




# R

# RICOH

Telefax-kopiagailuak

# EMANKORRA

RICOH kopiagailu edo telefaxa eskuratzen duzunean, iharduera-maila hobetzen ari zara zeure bulegoan. Eraginkortasunik handienaz lan egingo dute behar duzun denboran; emankortasunez eta nekatu gabe.



RICOH FT 7060

Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.

Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

Argazki izentaria

Arrasateko Udalak dirulaguntza eman zion Arrasateko Zientzia Elkarteari herria 250 argazkitan jasotzeko, argazkiok azkenaldian gertatzen ari den aldaketa bortitzaren lekuko izan daitezzen. ASA argazkizaleen taldeak hartu zuen bere gain lana burutzera, eta hamabikobatek sektoreka banatuta Arrasateri argazkiak ateratzeari ekin diote. Hori dela eta, ez harritu kalean norbait kamarekin eta planoari begira ikusten baduzu.

Gorostia eta Izeia

EKI kolektiboak Gorostiak eta izeiak babesteko kanpaina kaleratu du. Gorostirik ez ebaki, izeirik ez erosi lema badabilte ere, dagoeneko erosita dauden izeiei irtenbidea eman nahirik, berriz landatuko dituzte Gabon jaiak pasatutakoan. Horretarako kontenedoreak jarriko dira urtarrilaren 9, 10 eta 11an honako leku hauetan: Erguinen Udalpe kaleko iturri ondoan, Erdikaldean Gurea aurrean, San Andresen Abenida alboan, Zigarrolan eskola ondoko plaza txoan eta Obenerrekan frontoiaren ondoan. Horretarako zuhaitzak trapu bustitan edukitzea eskatzen da, eta urtarrilaren 12an egingo den landaketara gonbidatzen.

Sexualitatea

Aurretik gazteagoekin bezala, sexualitateari buruzko ikastaroa antolatuko du udalak 15 urtetik gorako gazteentzat. Ikastaroa urtarrila eta martxo bitartean izango da Famili eta Gizarte Heziketa zentruan, psikologo eta sexologo baten eskutik. Egunero bi orduko eskolak eskainiko dira, Gaztedia sailaren proposamenez Udalak hartu duen ekimen honetan, eta azken Gobernu Batzordeak 110.000 ptako aurrekontua eskaini dio.

# Txandaka

## INMUEBLEEN SALEROSKETETAN ARAZOAK

**I**nmuebleen salerosketetan azaltzen diren arazoak agertzen dira aldizka egunkarietan, maula edo engainu garbiei buruzkoak izaten direlarik batzuetan.

Azken aste hauetan, VIASA kasua sarri agertu da egunkarietako lehen orrialdeetan. Nahiz eta kasu honek kuantitatiboki ez eduki garrantzi handiegirik, eragin psikologiko handia izan du etxebizitza-erosleen artean, batez ere, bigarren etxebizitza bat urrutian erosteko asmoaz dabilzanen artean.

Nahiz eta arriskua beti egon, hona hemen aholku batzuk arrisku hori gutxitzeko:

1/Ziurtatu, saltzailea, eraikuntza egin behar deneko orube edo terrenoen benetako jabea dela.

2/Ziurtatu udal baimen edo lizentziak munizaipalak sinatuta daudela eta baimentzen dutela eraikuntza. Bi puntu hauek batzuetan zailak izaten



**Jesus Mari Markaide (\*)**

dira betetzen. Inmueble-Jabetzako Artekarien laguntza baliagarria izan litekeelarik.

3/56/1985 Legeak eskatzen duen beste garrantia bat, sarri ahaztu arren garrantzi handikoa dena -urrutiko promotore ezezagunekin gabiltzanean batez ere- zera da: guk promotoreari aurteratutako dirutzaren *abal* edo *bermea* eskatzea.

Edozein kasutan, hobe duzu zeure gestioak Inmueble-Jabetzako Artekarien bidez egitea. Berauek dira legeak ezarritako artekari profesionalak, eta hauek, profesionalki lan egiteko baimena lortu aurretik, beren hutsegite edo axolagabekeriagatik eragin ditzaketan kalteei erantzuteko fidantza bat emanda edukitzen dute.

(\*) Inmueble-Jabetzako Artekaria

Zabor bilketa

Gabon jai hauetarako zabor bilketa zerbitzuan aldaketa batzuk iragarri ditu Deba Garaiko Udal Elkarteak. Abenduaren 24 eta 31n, zaborrak arratsaldeko 2etan batuko dira. Hori dela eta poltsak ohizko lekuetan eguerdiko 1etatik eta 2etara bitartean kalera ateratzea eskatzen zaie herritarrei.

Pila Bilketa

Arrasateko hainbat dendatan jarrita daude Eguzki ekologista taldeak burutu asmo duen pila biltetarako kanpainaren ontziak. Erabilitako pilek zaborretara botaz gero uretan sortzen duten kutsadurari aurre egiteko modu bakarra birziklaia denez, deia egiten da erabilitako pilak denda horietan utz ditzaten.

# KIDE


## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

## LILURA

-k zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Salmentak amaitutakoan ekiten diete protestei

## Azokako auzia, konpongai

### Irtenbideetan baimenen luzapena edo azoka ixtea

Asteartean azokako saltzaile ibiltariet euren arazoari irtenbideren bat bilatzeko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarietkin izandako bilerak ez zuen erabakirik ekarri. Izan ere, astelehenean egin zen Udaletxean enkantetarako aurkeztutako eskaintzak irekitzea, eta kalez-kaleko saltzaileen aldetik ez zen bat ere proposamenik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Merkatal zuzendaritzak eta Alkateak saltzaile ibiltarietkin egindako bileratik gauza bat behintzat argi atera bait zuten agintariet: saltzaileek bat egin eta, abenduaren amaierarekin batera, Arrasateko azokako baimena bukatzen zaien arren, euren posturari gogor eustea erabaki dute. Guzti horrek egoera berri baten aurrean jarri ditu Udaletxeak, ez bait zuten halakorik espero, eta berri berri aztertu beharko dute egoera. Bien bitar-

tean, eta abenduaren 31n azoka saltzaile barik geratuko denez, bi irtenbide posible daude hemendik eta urte amaierara: azoka behin-behinerako ixtea, edo saltzaiekin prorroga edo luzapena negoziatzea.

Saltzaileek, euren aldetik, mobilizazioekin segitzeko asmoa azaldu dute, eta joan den ostiral arratsalde bezala, protesta ekintzekin aurrera egingo dutela esan. Herritarrei ere gonbidapena luzatu diete ekintza horietan parte har dezaten, baina ordezkariengandik jakin dugunez, aurreko ostiralekoan oso herritar gutxik hartu zuen parte.

Gogora dezagun saltzaileen eskararak hiru puntuen inguruan daudela batez ere: subastaren baldintzak, postu urritzeagatik saltzaileen kanporatzea eta ordaindu beharreko zergen igoeraren aurkakoa, hain zuzen ere.

## Usteak uste

**N**olakoak garen euskaldunak zaila da jakiten, besteak beste epaitzen gaituenaren arabera, epaia horrelakoa edo halakoa izan daitekeelako, baina baita urteen joanean euskaldunak ere aldatuz goazelako.

Mende hasierako Enziklopedia Britanikoaren ustez, marinela ausart eta trebeak ziren euskaldunak, gogorak, beharginak eta saiatsuak. Gaur egun, gu ados egon ala ez, euskaldunon irudirik zabalduena kanpoan gogorkeriarekin dago lotua.

Guk geure buruaz dugun irudia ere oso desberdina da, begiratzen den kristalaren arabera. Xabier Zubizarreta, Mondragoeko Alkateak bat baino gehiago aho bete hortz utzi zuen joan den larunbatean Udaletxearen inaugurazioa zela eta, autobien kontrakoek Imanol Muruari oihu, txistu eta txanpon hotsen artean egin zioten harrera justifikatu nahiz *hemengoak horrelakoak garelako* esan zuenean.

Behar bada Alkateak hobeto esplikatuko beharko luke, desadostasun politikoa azaltzeko eskubidea denona izanda ere, Diputatu Nagusiari egin zitzaiona ez zela *hemengoak horrelakoak garelako* izan, hemengo batzuk horrela egin nahi izan zutelako baizik.

Joxe Aranzabal



Mila hitz baino  
argiagoa da  
irudi bat



GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74



SAMEGO  
GARBIKETAK

Urburu 24,  
Tfnoa: 79 70 36  
ARRASATE


# Euskararen aldeko Hitzarmena

Arrasateko beste 21 elkarte euskararen alde

Arrasateko beste 21 elkartek Euskararen aldeko Hitzarmena sinatu zuten joan den asteazkenean, martxoak irekitako biderei jarraituaz. Ikastetxeak, herriko elkarteak, enpresak ... denetik biltzen dira, berriz eta, martxoan sinatu zuten 38 elkarten Hitzarmenera.

Asteazken eguerdiko 12etan, Udalaren deia erantzunez bildutako enpresan, Alkatea eta Hitzarmenaren jarraipenerako teknikaria, Jabier Ozaeta, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko Mari Karmen Garmendia, Euskaltzaindiaren izenean Juan Mari Lekuona eta AEDtik Jose Mari Mujika izan ziren mahaian. Xabier Zubizarreta Alkateak, gizarte elebakarraren aldeko apustua egin zuen egoera normalizatu elebarktasunetik pasatzen dela esanez. "Gure geroko gizartea hizkuntza asko dakiten hitzun euskaldun elebarkarrek osatuko dutela" espero duela adierazi zuen, eta horretarako bide bezala lurraldetasun eskubidea aldarrikatu.

Mari Karmen Garmendiak, hitzarmenagatiko poza azaldu ondoren, eguneroko lanaren nekea eta ahaleginaren beharra azpimarratu zituen, emaitzarik lortuko bada beharrezko moduan; sinatzaile berriak zoriontzarekin batera, orain artean etsi gabe diharduten lehengoei ere bere eskerrona azaldu zien.



Elkarteek banan-banan sinatu zuten

Erakunde sinatzaile bakoitzaren ordezkariak banan-ban agiria sinatu aurretik, AEDko lehendakariak hartu zuen hitza eta elkartearen helburu bakarra giza harremanak euskaraz izan daitezzen bultzatzea dela eta azaroan euskararen alde eta Udalak euskararen inguruan darabilen politikaren alde azaldu ziren herriko 50 erakundeei eskerrak eman zizkien. Herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezzen, erakundeetako zuzendari guztiek euskaraz ere jakitearen beharra gogora arazi zuen.



## Sinatzaile berriak

- La Merced Ikastetxea.
- Asa Taldea.
- Ikusentzun S.A. enpresa.
- Arrasate Pentsuak enpresa.
- Arrasateko Frantziskotarrak.
- Loramendi Kirolak.
- San Juan Bataiatzearen Kristau Elkarte.
- Leniz Autoeskola.
- Lantoki enpresa.
- Iker Altzariak enpresa.
- Goikobalu Abesbatza.
- Arrasateko Gurutze Gorria.
- Tailaginen Elkarte.
- Arrasate Kirolak enpresa.
- Jalgi C.B.
- Athlon enpresa.
- Udala Kooperatiba.
- Gureak Tailerrak enpresa.
- Askagintza.
- Deba Garaiko DYA.
- Bastida Akademia.


## Jaiotzak

Amozarrain Perez, *Ugaitz*, Abenduaren 11an  
 Sanz Errasti, *Olatz*, 12an  
 Ruiz Paez, *Mario*, 13an  
 Fernandez Urizar, *Aizea Edurne*, 14an  
 Fernandez Urizar, *Gladys*, 14an  
 Lazkano Ibabe, *Lide*, 17an  
 Canales Martinez, *Aitor*, 17an

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
 Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ




Kontzesifio 2,  
 Tfnoa: 79 14 06  
 ARRASATE

**beatriz**  
 oinetakoak eta  
 poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
 ARRASATE

1990



# SASKI NASKI

Lehiaketa


## OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

## Jose Aranzabal


TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK




### ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▶ Jokin Laspiur
- ▶ Aitor
- ▶ Betirtze Iñurritegi

## J. URIARTE



**Zein da Santamaseko animalia edierazgarriena?**



SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

**ERANTZUNA:** .....

Izena: ..... Helbidea: ..... Tfnoa: .....


## Udaletxearen Inaugurazio Ofiziala



Leizarango autobiarren kontrako manifestariak harrera zaratatsua eskaini zioten Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusiari. Txistuak eta oihuak entzun ziren gehien. "Badakite ni ez naizela gezurteroa" esan zuen gero Murua jaunak besterik zioten oihuei erantzunez.



Lierni Axpek eta Jose Jaime Bengoak ohorezko aureskua dantzatu zuten agintarien aurrean, manifestarien zaratek txistu eta danbolinaren soinuak estaltzen zituzten bitartean. Aureskua ere ez errespetatzeak eman zion pena Imanol Muruari, "inon ez bait zait horrelakorik gertatu".



Ifigo Arregi eta Julio Galarta pintore arrasatearrak ere han zeuden. Izan ere, eurenak dira Udaletxeko lehen solairuan Mondragoeko hainbat eszena isladatuz jarri diren koadroak. Gustora zeuden biak Udaletxeak hartu duen itxura berriaz.

**Onduline**

**TXOMIN HERIZ**

**URALITA**

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**LOREA**

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

**BAKAILO ETXEA**

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu


Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

**L**ARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Larunbatean Eugenio Etxebestek zuzendu zuen Goikobalu abesbatza. Goizean argi hastian, Goiko Mendingian eta Hator, hator mutil etxera abestu zituzten. Manifestarien abarrotsaren ostean, aingeru musika iruditu zitzaizkien guztiei.



Alfonso Gorroñogolia ere inagurazioan egon zen. Jende asko agurtu zuen, baina diosala berezia egin zion Lierni Axperi, egin zion gero agintarien aurrean ohorezko aureskua dantzatzeko zuen Lore Gazteak-eko dantzari gazteari.



Aspaldiko partez, bizirik dauden Arrasateko Alkate ohiak batera ikusteko aukera izan zen. Argazkian ezkerretik hasita Albaro Arregi, Andres Bidaburu, Pedro Bazterretxea eta Jose Antonio Altuna. Pleno aretoan gainerako agintariekin batera jarri ziren.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
 Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
 A. Otalora doktorea  
 A. Estomba doktorea  
 M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*


Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
 Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Prevlsa, Caplsa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
 telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Mondraren 25garren urteurrena laster dela eta, **Jose Luis Etxeberria**, "Porru", Mondrako lehendakariak, gauza bereziren bat eskaini nahi die Arrasateko zaletu guztiei. Horretarako, pasa den ostegunean Bilbora joan eta Madrileko Atletico taldeko presidentea den **Jesus Gil eta Gil**-ekin elkarrizketatu zen. Dirudenez, "Porru"ren asmoa Mondraren 25. urteurrenerako Gil-en taldea ekartzea litzateke. Ea lortzen duen.

Aurten ere jo eta sue ekin diote **Musakola Herri Eskolako** ikasleek argazkigintzari eta kaleetan zehar ikusi ahal izan ditugu Arrasateko irudiak jasotzen. Ilusioz hasitako ikastaroari ilusioz emango zaio akabera. Dena den, talde honetako partaide batzuk datozen Santamasetako argazki lehiaketan parte hartzeko asmoa dute, AEDk antolatutakoan hartu zuten lez. Nahiz eta dirutzarik irabazi ez, neska-mutikoez badakite eurok ateratakoak moduko argazkirik ez dagoela. Argi, beraz, epaimahaikook.

Urteurrenak ospatzen dituztenen artean **Txakolin koadrilakoak** daude. 25 urte ei daramatzate alkarrekin iriteten. Afaritarra bildu ziren joan den ostiralean Udalpe elkarrean eta Jose Antonio Vitoriari opariak eskaini zizkieten. Konpleto egoteko, zaindaria, San Victuro, eta himnoa ere badituzte talde horretakoek. Argazkian, orain hogeit bat urteko San Juanetan koadrila. ▶



**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





*Izen*  
**PROPIOAK**

● **JERARDO ELORTZA**, 46, ofatiarra, Oñatin sortu berria den euskararen aldeko *Laixan* taldearen lehendakari izendatu duti. Egunotan, gainera, itzulpenak egiteko ematen diren Orix sarietako bat irabazi du, Dos archivos do Trasnó liburua itzultzeko.

● **PELLO URIZAR**, 24, arrasatearra, aurrerantzean kiroldegiaren erabiltzaileen ordezkaria izango da *Aukeko* juntan. Pellok, Arantzazu Zubia ordezkaturiko du, aurretik bere dimisioa aurkeztu bait zuen.


● **AITOR ARANA**, 27, Oñatin bizi den legazpiarra izan da aurtengo Azkue sariaren irabazlea nobela sailean. Idazle legazpiarrak sariketa horretara aurkeztu duen lanak "Afrikako semea" du izenbururutzat, eta sari honekin hirugarrena du, aurretik Bilintx saria eskuratu bait zuen 86an eta Baporea saria 89an, biak ere gaztetxoei zuzendutako nobelen bidez.

▲ **Aitor Corral, Eneko Berberena eta Esther Manzano** izan dira joan den asteko Saski Naski lehiaketako irabazleak. Tamayo paperdendan izan genituen, saria jaso eta argazkirako prest. Zorionak!



Epelbe

Dorletako elizan **Josu Uribesalgo** eta **Elena Abasolo** ezkondu ziren uztailaren 28an. Ezkontza ondorengo bidaia nora egingo, eta Greziara egitea pentsatu zuten. ▶



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

**arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
Arrasate, 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

# Zer jostailu aukeratu?

**Kontsumokeria, markak..., etengabeko gurpila da Gabonetako jostailuena. Badira, hor ere, kontuan izan beharrekoak.**

**J**ostailuak erosterakoan, oraindik egin ez duenarentzat, hona zenbait ohar, kontuan hartu beharrekoak.

Gabonak gainean dira. Olentzerok beterik behar ditu opariz zakuak eta Errege Magoen ganbeluak abiatuak, pasara Arrasateko neska-mutikoen opariak uzteko. Jostailuak, umearen altxor preziatua aztertu beharrekoa da garaiotan, kontsumoak eta kontsumokeriak umearengan izaten duen eragina dela eta.

## Jolasaren garrantziaz

**D**enok izan dugu umetan jostailuren bat, eta jostailurik ezean, asmatu egiten du beti umeak, edozein gauza bihurtzen du jostailu, jolaserako tresna. Jolasa ezinbesteko beharra da eta, ikasbide eta besteekin komunikatzeko era. Jolasaren bitartez, maila askotan helduko da umea: intelektuali, gorputz eta giza mailan, afektibitateari eta

moralari dagokionez eta bere izakerako ezaugarriak kanpotu eta inguruko berrri jasotzen du.

Umearen bizitzan hartzen duen garrantziarengatik, bazter egokia behar genuke gure etxean umeak jostailuak eskura izan ditzan; baina aldi berean, kanpoko jolasak ere berebiziko inportantzia duenez, parkera edo mendira irtetzea oso komenigarria da, askatasunez mugitzeko lekua izango duelako, eta nahi dituen jostailuak asmatzeko materiala -harriak, makilak ...- aurkituko duelako.

## Funtzioak eta norentzakoa

**J**ostailuak, jolasaren eta, ondorioz, umearen pertsonalitatearen garapenean duen garrantziarengatik, funtzio bereziak bete behar ditu. Umearen ikertu nahi eta irudimena ase eta sormena landu behar ditu, atsekabe, beldur eta desioak bertan proiektatzeko modukoa izan, jarrera fisiko eta mentalak bultzatu, partaidetza eta besteekiko harrema-



Jostailuaren izena markarenarekin ematen dute umeek

na gehitu eta atsegina sortzea bilatu behar dira jostailuetan.

Jostailuek umearen sexuaren arabera aukeratzearen ondorioz asko hitz egin da aspaldian. Baina kontuan izan behar da, jostailuak gizartean eta bere partaidetean izan dezakeen

## Adin bakoitzerako eta umeari begira, jostailu egokia aukeratzeko oso da garrantzitsua

eragina ez dela gizarteak jostailuarengan duen eragina baino handiagoa. Eta argi dago gizartea ez dela jostailuak baino lehen aldatuko. Umearen plazererik handiena bizi duen ingurunea imitatzea denez, etxean ikusten dituen jarrerak errepikatuko

ditu. Beraz, ez da komeni bataren eta bestearen pape-retan indar egiterik, baina beste aldetik, kaltegarri ere izan omen daiteke jostailuak aukeratzeko dagoen presio soziala ahaztu eta paperak bortizki aldatzen saiatzea.

Jostailu belikoen erabileraren ere auzitan jarri da azkenaldian, eta talde antimilitaristek bezala beste hainbat hezitzailek jostailu mota horrek umeari dakarkion arriskuaz hitze giten dute. Beste korrante batek dioenez, berriz, zaila da horrek zenbaterainoko eragina duen jakitea eta jostailuok umearen joera erasotzaileak askatzeko bide izan daitezke. Erdibidean izan daiteke erantzuna, gurasoek behintzat jarrerarik ez bultzatzean.

## Kontuan izan

**J**ostailua aukeratzekoan, ez da fidatzerik "hezitzaile" dioten txartel-txoarekin, eta benetan fun-



Olentzerori edo Erregeei gutuna idatzi aurretik, zuzenean aukeratzen dakite umeek

tzio hezitzailea bete dezan, honako ezaugarri hauek bete beharko ditu:

-Umearen adinerako proposa izan.

-Gorputzaren garapena eta eskuen trebetasuna landu.

-Zentzuak landu

-Ahalmen sortzailea indartu.

-Estetikarako sentipenak esnatu eta gehitu.

-Umea gizarterako presatu eta inguruarekiko interesa sorrarazi behar dio.

Guzti horrengatik, zer lortu nahi dugun argi izatea komeni da. Geure burua goratu nahi al dugu? Ala lagunak aho zabalik utzi? Eskaintzen ez diogun astiaren ordaina ote dira oparitutako

jostailuak?

Kontuan izan behar da jostailuen erosketak kontsumokeria ekar dezakeela, ume askorentzat opari ona garestia bait da.

### **Oparia ez ote da eskaintzen ez diogun denboraren ordaina?**

Erosteke orduan kontuan izan behar dira gainera, zenbat eta jostailu konplexuagoa, garestiagoa izaten

dela, eta hondatzeko ere arrisku gehiago. Komenigarriago dira jostailu sinpleak, nahi dituen elementuak gehitzeko modua izan dezan umeak. Gainera, errealitatearen kopia zehatza diren jostailuek ez diote lekurik uzten sormen eta irudimeneri. Jostailuen etiketa eta azalpenei arreta berezia jar-tzeaz gain, osagaien gogortasuna eta segurtasunari begiratu behar zaie, ume txiki-tzatzat baldin badira, bati-pat. Komeni izaten da, bestalde, zenbat diru gastatu nahi den aurrez erabakitzea, eta azken egunera aurretik erosiz gero, aukera zabala-go eta prezioak gonbaratzeko modua izaten dela ere ez da ahaztu behar.

## **Olentzerori eskatutakoa**

- "Bi auto eta jolasteko makina". (Aitor, 5 urte).
- "Nenuco eta bakarrik ibiltzen den autoa". (Yanire, 5).
- "Mendiko bizikleta". (Jon, 10).
- "Iristola eta Martens oinetakoak". (Xabier, 11).
- "Bakeroak arranoekin eta kitarra". (Andoni, 5).
- "Baby Feberren sehaska eta erlojua". (Olatz, 7).
- "Robota". (Xabi, 5).
- "Espace Turbo eta erlojua". (Jon, 7).
- "Kontsola, erlojua eta txirula". (Aitor, 7).
- "Mekano, motorra ...". (Julen eta Unai, 5).
- "Maleta eta etxeko zapatilak". (Eduarne, 10).
- "Tozudoa". (Tania, 9).
- "Pianoa". (Iban, 13).
- "Ezebez". (Ainhoa, 3).
- "Show bat". (Kristina, 9).
- "Barku pirata eta heliportua". (Karlos, 6).
- "Nenuco eta Baby Feber". (Tania, 4).
- "Patinetea". (Oier, 6).
- "Bideo jokua". (Iker, 10).
- "Skalestrixa". (Haritz, 9).
- "Panpina, pafueloak, Ponyren tokadorea". (Jone, 6).
- "Liburuak eta hiztegia". (Lur, 8).
- "Walki-talkia, hiztegia eta chincheando". (Ainhoa, 9).
- "Zapatilak eta eskularmuak". (Antonio, 6).
- "Pasteleria, denda eta izoztegia". (Ane, 6).
- "Hiztegia, liburuak eta disko rapid". (Antton, 7).

**AUTO  
ESKOLA**

# **ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# IBM ESKAINTZA

Ikasleentzat

## IBM PS/1

Bost minututan egingo zara jabe

Lanerako prest.

Edozeinek erabil dezake pantailaren azalpenekin, ordenadoreak gidatu egiten bait du lan egin ahala, informatikariki jakin ez arren. Produktu mota berri honek bere baitan du software osoa, erraminta eraginkorrena bihurtuz.

### Softwarearen barruan

• **Microsoft works**

Testu prozesatzailea, behar duzuna idazteko: gutunak, txostenak, liburuak etab.

Kalkulu orria, aurikuspenak, grafikoak, aurrekontuak etab. egiteko.

Datu basea, nahi duzun informazioarekin lan egiteko:

• **PS/1ari buruzko programa eta funtzionamendua.**

• **Microsoft Workseko tutoriala.**

• **Basic programaziorako lengoia.**

• **IBM DOS 4.0 Sistema Operatiboa.**

• **LogicControl Softwarea**

**Kontabilitate pertsonala.** Etxeko gastuak, sarrerak, banku kontuak, aurikuspenak etab. kontrolatzeko modua ematen du. Agenda, kalkuladora eta egutegia ere baditu.

**Informatikarako sarrera.** Oinarriko informatikari buruzko ikastaro autodidaktikoa, zure ordenadoreak nola lan egiten duen

ikasteko, lan egiten den artean makinarekin praktika eginaz.

Gaur egun aurrezki kutxa eta banketxe guztiek berehala eskaintzen dituzte "mailegu pertsonalak" edo "familiarak" eta horietan erraz sartzen da ordenadorea erostea. Egizu kontsulta zure banketxean.

### Ezaugarriak eta prezioak

Modeloa	RAM memoria	VGA monitorea	Disketera	Disko gogorra	Eskaintza prezioa
PS/1-134	1 MB	Kolorebakarra	1,44 MB	30 MB	257.463,-
PS/1-234	1MB	Koloretakoa	1,44 MB	30 MB	257.463,-

• INTEL 80286tik 10 MHz Prozesadorea.

• Bi zapalgailutako xagua.

• 102 teklatako teklatu handia.

• Sistema operatiboa.

\*BEZ barne

PS/2 IBM 30-286+Syimphony = 296.351 pta.

# LOGIC CONTROL

**Gasteiz Etorbidea 63,  
Tfnoa: 945 / 24 63 08  
GASTEIZ**



# Atsedeen egunak

**Santamasak direla eta, datorren astean ezingo da futbitorik ikusi.**


**Z**aldibarko frontoia izatez pilotan egiteko tokia bada ere, futbitoak bildu lekutzat hartu du azken aldi honetan. Dena dela, datorren asteburuan ez da futbito partidurik jokatu bertan, ohi denez, aizkolari eta harrijasotzaileek protagonismoa hartuko dutelako. Beraz, hemendik bi astera arte futbitoa geldirik.



⊗ IKATZ-EN DITUGU  
AZKEN ARGAZKI-MAKINA ETA  
BIDEO-KAMERA BERRIAK SALNEURRI EZIN  
HOBEAN, GURE ARRASATEKO IKATZ  
DENDAN HIRU HILABETETAN INTERESIK  
GABE ORDAINTZEN BAITA.  
IKATZ-eko EGARKINAREN ATZETIK  
JOAN ZAITEZTE!



**IKATZ** ARGAZKI ETXEA  
ITURRIOZ · 8 · · 770401  
ARRASATE



**ILLARRAMENDI**

**Geure lantegiak ditugu**

Iturrioz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



**LANTEK**

Informatika teknikoak

Basabe poligonoa, C 1,  
Tfnoa: 79 66 21  
ARETXABALETA

**JOMA**

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA S.A

Gipuzkoa Etorb. 32,  
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE

# A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Sumin. Ugarte	11	10	0	1	71	22	20
Zortzikin nahiko	11	9	0	2	66	32	18
Golfos Persicos	11	8	2	1	61	21	18
Bizkorrak	11	9	0	2	50	29	18
Autovia patutia	11	7	1	3	43	35	15
Potrozorri	11	7	1	3	40	35	15
Mutikotes	11	6	0	5	37	31	12
Kakajauri	11	4	2	5	24	38	10
Cañ. Pto. Urraco	11	2	3	6	26	31	7
Ezkinako ontzak	11	2	2	7	24	51	6
Bar Alcalde	11	2	1	8	31	68	5
Yokese	11	1	2	8	20	45	4
Bayern de Leniz	11	1	1	9	32	67	3
Ugarixoak	11	0	0	0	0	0	0
<b>Total</b>	<b>154</b>	<b>70</b>	<b>16</b>	<b>68</b>	<b>555</b>	<b>555</b>	<b>154</b>

# B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Zuloak	11	10	0	1	77	28	20
Arrasate Kirolak	11	8	1	2	55	32	17
Kriskibalda	11	7	2	2	55	29	16
Los Heredia	11	7	1	3	70	31	15
Sokoa-600	11	6	2	3	38	42	14
Laso Arregi	11	6	1	4	49	37	13
Toki Eder	11	6	0	5	54	62	12
La ira de Odin	11	5	1	5	48	38	11
El Regreso	11	4	1	6	47	57	9
Okendo Kirolak	11	3	1	7	44	55	7
Aizpun bila	11	3	1	7	42	53	7
Resakas	11	3	0	8	33	74	6
Solano 90	11	2	1	8	40	58	5
Gimnasio-Saioa	11	0	0	0	0	0	0
<b>Total</b>	<b>154</b>	<b>71</b>	<b>12</b>	<b>71</b>	<b>664</b>	<b>664</b>	<b>154</b>

# C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Alperrak	11	11	0	0	88	31	22
Fosforos	11	9	0	2	77	45	18
Pepelus	11	9	0	2	56	34	18
Zelai	11	7	1	3	74	40	15
Artano	11	6	3	2	61	36	15
Diego Antonio	11	7	0	4	76	40	14
Bar Kajoj	11	6	1	4	58	42	13
Sannan Hussein	11	5	1	5	36	36	11
Los motz	11	5	0	6	64	60	10
Kannabis boys	11	4	1	6	58	56	9
Danok lagun	11	2	2	7	38	56	6
Neptuno	11	2	2	7	36	87	6
Steaua del grifo	11	2	2	7	25	62	6
Bacilona	11	1	3	7	43	68	5
Muru Barren	11	2	0	9	28	57	4
M.G.M.	11	1	2	8	19	87	4
<b>Total</b>	<b>176</b>	<b>79</b>	<b>18</b>	<b>79</b>	<b>837</b>	<b>837</b>	<b>176</b>


# D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi ibili	11	11	0	0	105	28	22
Lorategi-Potroak	11	9	0	2	61	36	18
Adelaida	11	8	0	3	59	27	16
Camerun's	11	7	1	3	75	26	15
Artzanko's	11	7	1	3	52	25	15
Balaik	11	7	0	4	40	38	14
Sisepuede	11	6	0	5	45	24	12
Rayo Vatika-no	11	6	0	5	40	45	12
Babarias	11	5	2	4	36	41	12
La ban. de Pepe	11	4	2	5	41	49	10
Gau azkenak	11	5	0	6	32	29	10
Avinagraos	11	3	1	7	30	58	7
Gastaos	11	2	0	9	28	89	4
Inter de alimañas	11	2	0	9	25	64	4
B.B.V.	11	1	1	9	21	77	3
Sukumu.-Aterpe	11	1	0	10	16	56	2
<b>Total</b>	<b>176</b>	<b>84</b>	<b>8</b>	<b>84</b>	<b>710</b>	<b>710</b>	<b>176</b>

# TELLERIA

## autoeskola

- Mitarte 18, Tfnoa: 79 53 51 ARETXABALETA
- Juan Carlos Gerra 2, Tfnoa: 79 18 39 ARRASATE



Denetarik ikusteko aukera izaten da Zaldibarko futbito txapelketan jokatzaren partiduetan, eta sarritan jokalarien postura behartuak, futbitoan ez beste zerbaitetan pentsarazten dute. Esaterako, argazkiari begiratu gero, futbitoan baino dantzan dabiltzala pentsa daiteke. Eskerrak baloia agertzen den eta horrela argazkiak zentzua hartzen duen.

**OPEL**   
 Hobeak esperientziaz  
**TALLERES OLA, S.A.**  
 Erakusketa Arrasaten:  
 Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

 **Lorategi**  
**Kafetegia**  
 Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**ALCANADRE**  
**TABERNA**

**SOKOA**  
**TABERNA**  
 Zeharkale estalia  
 Arrasate

# E maitzak

## A taldea

Eskifako Ontzak 1	Suministros Ugarte 10
Zortzikin nahiko 3	Cañon Pto Urrako 1
Bizkorrak 4	Golfos Persicos 8
Yokese 2	Kakajauri 4
Mutikotes 3	Autovia patutia 6
Potrosorri 5	Bayem de Leniz 4
Bar Alcalde 1	Ugariteek

## B taldea

Arrasate Kirolak 3	Sokoa 600 3
Laso Arregi 4	Solano 90 4
Toki Eder 6	Zuloak 9
La ira de Odin 2	Los Heredia 5
El regreso 1	Gimnasio-Seiea
Kriskibalda 3	Aizpun Bila 3
Resacas 5	Okendo Kirolak 3

## C taldea

Diego Antonio 4	Sanann Hussein 2
Fosforos 4	Steaua del Grifo 2
Kannabis boys 2	Alperrak 5
Zelai 9	Bar Kajoi 3
Danok Lagun 3	M.G.M. 3
Pepelus 6	Muru Barren 1
Los motz 15	Neptuno 5
Artano 3	Bacilona 3

## D taldea

Avinagraos 1	Lorategi-Potroak 7
Sisepuede 2	Argi Ibili 3
Camerun's 5	La Banda de Pepe 1
Inter de alimañas 3	Gastaos 5
Artzanko's 2	Adelaida 3
Gau azkenak 1	Babarias 4
Sukumurus- Aterpe 1	Rayo Vatika-no 2
B.B.V. 1	Balake 6

# KAJOI

## TABERNA

*Erdiko kale 22, ARRASATE*

# Txutak

## IHDUNALDI PAREKATUA

Zaldibarko futbito txapelketaren barruan, joan den asteburuan jokatu dena parekotasunaren ihardunaldia izan da. Emaitezi begiratzea besterik ez dago. Jokatu ziren partidu guztietatik lau berdinketan bukatu ziren: Arrasate Kiro-lak-Sokoa 600, 3na. Laso Arregi-Solano 90, 4na. Kriskibalda-Aizpun bila, 3na. Eta Danok Lagun-M-GM, 3na. Aurreko emaitzei, beste sei partidu gutxieneko diferentziaz bukatu zirela esan behar da, eta gainera,

teorian behintzat, irabazi zutenek erraztasunez irabazi behar zuten partiduetan. Esandakoarekin norbait konforme gelditu ez balitz, esan behar zaio beste sei partidu bi goletako diferentziaz erabaki zirela. Parekotasuna, beraz. Badirudi asteburu guztian zehar egin duen hotzak eragin berezia izan duela gol egileengan. Joan den astean kanporaketa baten berri ematen bazen, Gimnasio Saioarena hain zuzen, aurtan beste batena eman behar, Ugarixoak taldearena. Arrazoi bera, partidua jokatzera ez agertu izana.

*Beñardo Kortabarria*

## DATORREN ASTEBURUAN

### A taldea

Eskifako Ontzak .....	Bar Alcalde
Zortzikin nahiko .....	Suministros Ugarte
Bizkorrak .....	Cañon. Pto.Urraco
Yokese .....	Golfos Persicos
Mutkotes .....	Kakajauri
Potrosorri .....	Autovia patutia
Ugarixoak .....	Bayem de Leniz

### B taldea

Arrasate Kiro-lak .....	Resacas
Laso Arregi .....	Sokoa 600
Toki Eder .....	Solano 90
La ira de Odin .....	Zuloak
El regreso .....	Los Heredia
Kriskibalda .....	Gimnasio Saioa
Okendo Kiro-lak .....	Aizpun Bila

### C taldea

Diego Antonio .....	Artano
Fosforos .....	Sanann Hussein
Kannabis boys .....	Steaua del Grifo
Zelai .....	Aperrak
Danok Lagun .....	Bar kajoi
Pepelus .....	M.G.M.
Los motz .....	Muru Barren
Bacilona .....	Neptuno

### D taldea


Avinagraos .....	B.B.V.
Sisepuede .....	Lorategi potroak
Camerun's .....	Argi Ibili
Inter de alimñas .....	La banda de Pepe
Artzanko's .....	Gastaos
Gau azkenak .....	Adelaida
Sukumurus- Aterpe .....	Babarias
Balalake .....	Rayo Vatika-no

# BIDEO ARRASATE



## Eskien konponketa

Iturriotz 14, Tfnoa: 79 11 58  
ARRASATE




## SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98 ARRASATE



Jon Goikolea

## Arrasatear bat Japoniatik bisitan etorria



**J**on Goikolea, duela 10 urtetik Arrasatek kanpo dabil. 1959. urtean jaio zen, Arrasaten Maestria ikasketak egin eta Australiara aldegitia erabaki zuen. Lurralde hartan bere bizitzako bost urte eman zituen, eta gero Japoniara joan zen. Japonian bost urte daramatza, eta egun haue-  
tan Arrasaten dabil.

— Zertan ibili zinen Australian?

— Han gehiena golfo antzean ibili nintzen, lan gutxi. Ingelesa ikasi, ordenadoreei buruzko ikastaroren bat egin, eta mekanika arloan ere zerbait ikasi nuen. Bidaiatzea ere nahi nuen, eta bidaiatu ahal izateko denboraldi batean mekaniko ibili nintzen.

— Eta Japonian?

— Irakaslea naiz, erdarazko klaseak ematen ditut

— Zergatik joan zinen?

— Mundua ezagutzera joan nintzen. Hemengo bizimoduaz apur bat aspertuta nengoen, eta beste toki batzuk ikusi nahi nituen.

— Japonia eta Australia desberdinak dira, ez?

— Bai, oso desberdinak. Australiako bizimodua iparramerikarren bizimoduaren ispilua da, aldiz, Japoniako bizimoduak, ez du horrekin zer ikusirik. Gainera, kontuan

hartu behar da, Japonian bizi naizen tokia baserri giroko herri txikia dela.

— Bi toki horietan, bizitza hemengoa baino hobea da?

— Japoniara ez da euskalduna baino hobeto bizi, lan gehiago egin, lan-baldintza okerragotan, etxeak ere txarragoak dira..., Japoniarrak, Japoniatik kanpo aberatsak dira, baina han guztiek lana egin behar dute eta oso garestia da. Kale girorik ez dago, kultur giroa, ordea, oso zabala da.

### “ Japonian eta Australian ez dakite hemen bezain ondo bizitzen ”

Australiarrak bizimaila altuagoa dauka, baina ez daki hemengoek bezain ondo bizitzen. Gauza on asko daukate, baina ez dago hemengo girorik, japoniarrak baino hobeto bizi dira, halere.

— Sabelari begiratuta?

— Australian sukaldaritza ez zaio jaramon handirik egiten, gehienbat haragia jaten da, gozoa, egia esan. Japonian berriz, gauzak oso gutxi eginda edo egosita jaten dira, ondorioz ez dira gozoe-

giak, baina osasunerako onak dira. Behin jatekotan, hemengo janaria bezelakorik ez dago, baina egunero jan beharrez gero, Japoniako hobea da. Ez dago pertsona gizenik, eta gainera urte piloa hartzen dute.

— Kanpotik joandako irakasle batek jateko beste ateratzen du ?

— Soldata aldetik ez dago txarto. Gainera, Japonian eta Asia osoan irakasle izatea oso ondo ikusita dago, garrantzia ematen zaio irakasleari.

— Posible izango litza-

giratzen diote. Arrazista samarrak dira. Legerik ez balego, uste dut japoniara ez litzatekeela moral handiko pertsona izango, baina legerik apurtzen ez duen horietakoa da, ahaztu gabe poliziarren aldetik izugarrizko kontrola dagoela.

— Han ere beti argazki kamararekin dabilta?

— Bai...

— Ligatzea erraza da?


— Gizonarentzat bai, txistua jo besterik ez da egin behar. Emakumearentzat oso zaila da.

— Eta hizkuntza?

— Ikasteko asko saiatu behar izan dut. Dena dela, euskaldunentzat ez da hain zaila, hizkuntza biek antzerako gauza asko daukate eta. Niri asko gustatzen zait, oso aberatsa da.


— Japoniari herri arreratu bezala begiratzen zaio, hainbesteko da?

— Jende askori erakusten diot, eta pertsona argiak badaude, baina artaburuak ere bai. Zer gertatzen da? hemen norbera dela garrantzitsua; Japonian, berriz, lehenbizikoa enpresa da, gero familia, eta azkena norbera. Gizartearen aldetik lana egiteko izugarrizko presioa daukate, eta ondorioz, bakoitzari dagokion oporraldia hartzea ere oso gaizki ikusita dago.



## Ziklo-krosa Aretxabaletan

Datorren igandean, eguerdiko 12.15etatik aurrera, Aretxabaletako 21. Nazioarteko Ziklo-kros Kriteriuma burutuko da, profesional eta afizionatu mailetan. Euskadiko txirrindulariez gain, Jose Mari Iurrebaso, Jon Egiarte, Jose Ramon Eizagirre, Benito Duran, Iñigo Igartua... kanpotik etorritako Mike Kluge, Pascal Richard, eta Steve Douce ere Aretxabaletan izango dira. Ibilbi-deak, 2.860 metro ditu eta txirrindulariek ordubeteko lasterketa burutu beharko dute.



## Xake lehiaketa

Santamasak direla eta, beste ekintza ugariren artean bihar, etzi eta igandean Arrasateko bigarren Xake lehiaketa burutuko da. Jokaldi guztiak Musakolako kiroldegian egingo dira, ordutegi honekin: 9.30etatik 11.30etara, 12etatik 14etara, eta 16tik 18ra. Xake lehiaketa hau irekia izango da eta Suitzar erara jokatuko da, 8 errondara. Partida edo jokaldiko jokalarari bakoitzak ordubete izango du. Ea bada, animatu eta Musakolatik agertu!



## Saskibaloian garaipen berria

Centraljet Euskal Air taldeak joan den astean garaipen berria lortu zuen, oraingoan Azpeitiko Loiola 91 taldearen aurkako partiduan, 68 eta 76ko emaitzaz. Txus Brizuelaren taldeak goitik behera dominatu zuen partidua eta ondorioz, Arrasatetik joandako 150 zaletuen txalo beroak jaso zituen. Orain, urtarrilaren 5era arte saskibaloitaldekoek ez dute partidurik izango, baina hala ere, ez dute oporrik izango, eta entrenamenduekin segituko dute. Daukaten moralaz seguru egun hauetan egin beharreko lana ere gustora hartzen dutela.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

**MIKEL**

**Eskaiola, pintura eta  
kortxoeko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE

## FELIX URRUTIA

### Txirrindu gainean makina bat ordu

# PODIUMA



**F**elix Urrutia, duela 45 urte Eskoriatzan jaio zen. Txirrindu gainean urte asko badaramatza ere, ez zen umetatik ibiltzen hasi. "Lehen txirrindua 19 urterekin eduki nuen. Ez zen oso txirrindu ona, pinoiak aldatzekorik ez zuen eta. Dena dela, kilometro ugari egin nituen harekin, Donostiara, Bilbora eta... joaten nintzen".

Felixek txirrindu gainean egin zituen lehen kilometroak ziren horiek, gero soldaduskatik bueltan gauzak seriotasun handiagorekin hartu zituen. "Soldaduska egin eta berehala, txirrindu berria erosi nuen. Ondo entrenatu eta gero afizionatu mailako lasterketetan hasi nintzen, baina oso ona ez nintzen urtebetera utzi egin nuen. Beranduago zikloturista ibili nintzen, baina oraindik txapelketetarako go-go pizturik nuen eta berriro lasterketetan hasi nintzen, beterranoen mailan. Orain utzi egin dut beterrano maila eta zikloturista soila nait".

Konpetizio lasterketak alde batera utzita dauzka Felix Urrutiak, baina beterranoetara bueltatuko balitz, seguruen maila ona erakutsiko luke. "Beterranoen artean ez nintzen gaizki ibil-

tzen. Lasterketa bat irabazi nuen, eta beste askotan hamar lehenengoan artean sartu nintzen. Agian, sprint azkarragoa izan banu, lasterketa gehiago izango nituzkeen irabaziak. Sprint-ean oso ona ez izateaz gain, beste akats bat ere banuen, jaitzierak hain zuzen".

Txirrindu gainean ez omen da inoiz aspertzen, dio Felix Urrutiak, eta ondorioz, ahal duen bakoitzean, eguraldiari jaramonik egin barik, txirrindua hartu eta kilometroak egitera joaten da. "Osasunerako ona izateaz gain, txirrindu gainean oso ondo pasatzen dut, nahiz eta batzuetan neketu samarra izan. Niretzat, txirrindularitzak garrantzi handia dauka... hau kenduko balidate ez dakit zer egingo nukeen".

Felixek auto gidarientzat badu mezurik ere. "Txirrindulari bat ikusten duenean kontuz ibil daitezela, defentsarik ez dauka eta".

#### Emakumezkoen futbola

Deba Garaian futbolearen ari diren emakumezkoen taldeak joan zen aste-buruan emaitza oso desberdinak atera zituzten. Aretxabaletako taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Iruñeko, Lagunak taldearen aurkako partiduan, 0 eta 2. Mondrako emakumezkoen taldeari gauzak ez zitzaizkion bat ere ondo joan, Zarautz-en aurkako partidu osoa kontrolatu eta gero, 2 eta 1eko emaitzaz galdu zuten eta.

#### San Andres azkena

San Andres taldea Arabako prefenteari dagokion sailkapeneko azken postuan dago. Orain artean, nahiz eta garaipenik ez lortu, nola edo hala, maila ona ematen ari ziren Luengoren mutiak. Pasa den larunbatean, ordea, orain arteko irudia aldatu zuten San Andres taldekoek. Alegria taldearen aurka jokatu zuten, eta emaitza 7 eta Okoa.

#### Euskal Kirolak

Santamasetako egitarauaren barnean, 22an, euskal kirol saio polita ikusi ahal izango da Zaldibarko frontoian. Egurdiko 12.30etan Arrospide, Olasagasti, Larretxea eta Etxebeste aizkolariak; ondoren Gibitegi harrijasotzailleak bolo-harriaren rekorda gainditzeko saiakera egingo du.



- \* Candanchu: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- \* Astún: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- \* Valdezcaray: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.

## Deba Garaia

**Inmueble eta finantza agentzia**

Iturriotz 23 etxebehea, Tfnoa: 77 13 02 / 77 14 27 ARRASATE



# Forma fisiko onean gaude? (IV)

**A** tleta baten ustegabeko heriotza eztabaida sakinak sortzen dituen hondamendia izaten da.

Historiak dioenez, lehenengo maratoi-egilea, Filipides alegia, bapatean hil omen zen, Pertsiarren gain izandako garaipenaren berri emateko Atenasera heldu zenean.

Harez geroztik, ustegabeko eta bapateko heriotzak esfortzuren bat egiten ari diren bitartean, behin baino gehiagotan gertatu izan dira; baina azken urteotan, korrika herritarrak eta maratoiak ugaritu egin direnez, are kasu gehiago gertatzen da, eta albiste hauek komunikabide-


tan duten zabalkundearekin, ondorioz eztabaida handia sortu da. Jogging, footing, etab. egitea, onuragarria ala kaltegarria da?

Gai honi buruz badaude azterketa zehatzak, autopsietan oinarrituak; eta hauek erakusten dutenez, ongi entrenaturiko atletak ariketa egiten ari direla bapatean hiltzen diren kasuetan, % 97an aurrez bihotz-lesioaren bat zutela ikusi izan da. Heriotze hauen zergatia gazteetan "miokardiopatia hipertrofikoa" izan ohi da, hau da, bihotzaren handikuntza, eta gaitz hau, halako maiztasun batez ematen da jendearen artean; eta pertsona helduen artean, berriz, koronarien arteroesklerosia izaten da era-

gilea.

1978. urtera arte maratoi-korrikalarien "mito kardiologiko" an sinesten zen, gaitz koronarietako immuneak zirela pentsatzen bait zen.

1979an, ordea, besterik agertu zen. Hildako maratoizaleei egindako autopsie-



tan koronarietako lesioak agertu bait ziren; beraz, mito-a suntsitu egin zen.

Geroztik, argibide edo ebidentzia hauek biderkatu egin dira eta ez maratoizaleen artean bakarrik; edonolako korrikalari, txirrindulari, futbolari, etab. hil dira, bakoitza bere kirola egiten ari zen bitartean, eta hauek ere arteriosklerosiaren lesioak bazituztela ikusi da.

Argi dago, beraz, ariketa fisikoak ez duela immunizazioa ematen. Baina, gaixotasun arteriosklerosoari aurre egiten laguntzen du ala ez?


Hau da oinarrizko arazoa, eta honen erantzuna hurrengoan emango dizuegu.

*Eukeni eta Arantxa*



## Arrasateko Udala

**Eguberri-jai zoriontsuak eta Urteberri on opa dizkizue Arrasateko Udalbatzak arrasatear guztioi**



Antolatzaletzailea: ARRASATEKO UDALA  
Laguntzailea: EROSKI Kontsumitsaileen Komitea

Ordutegia: Goizez 11etatik 2etara  
Arratsaldez 4etatik 8etara

**ZATOZ!!!**

## Alfabetizazioren nazioarteko urtea dela eta... (IV) Jubilatuen etxeak

**G**ure biztanle-goaren zati garrantzitsua, 65 urtetik gorakoa da, eta nahiz eta atzean utzi dituzten lan "produktiboak" deiturikoak (entrepresetan...), hor jarraitzen du biztanle-go zati inportante honek hainbat lan eta funtzio egiten: etxeo lanak egiten, baratzak lantzen, lan sozialak burutzen, eleizako eginkizunak betetzen, alderdi politikoetan parte hartzen, gaixoen zainketaz arduratzen... Baina, gehienok denbora librea ere badute.

Populazio zati honi elkarrekin bizitzeko espazioak

edo formakuntza eskaintzeko eta denbora librearen arloren bat bideratzeko Arrasateko herriak lau toki ditu: "Jubilatuen etxeak" (Uribarri, Santa Marina, Musakola eta Abaroa), guztira 3.500 bazkide batzen dituztelarik.

Zein da espazio hauen helburua?

Norberaren denbora librea gestionatzea, aberastea eta bakoitzaren buruari ahalmen eta gogo berriak sortzea edo ahaztuak berreskuratzea.

Helburua goizalea da, baina bidea pausoka egiten da eta hainbat pauso, ekintza eta ahalegin egina dago honenez gero. Hona hemen guzti hauen emaitza:

- "Ekintza" aldizkaria: Artikulutxoak, poemak, bertsoak, denborapasak, etab. Egileak bazkide talde bat eta Asistenta soziala dira.

Jubilatu etxeetan banatzen da, hilerio.

- Dantzaldiak

- Hitzaldiak: Helduen hezkuntza, Erlajazioa, Arazo legalak (testamentuak, alki-lerrak...).

- Irteerak: Urkulu oinez, ETBra...

- Ikastaroak: Sukaldaritza, Eskulanak.

- Bideo emanaldiak.

- Erakusketak: Esku-lanak (1990eko abenduaren 21, 22 eta 23an Abaroan)

- Karta txapelketak

Agian ekintza batzuen partaidetza ez da oso ugaria, ohitura faltagatik edo, baina bazkideek ikasi dute bidea: eskaerarik ez da falta eta gogoz daude ekintza hauen zain:

- Sukaldaritza ikastaroak (Santa Marinakoek lokala lortzen dutenean).

- Puntua eta gakorratza ("gantxilloa").

- Yoga eta soinketa.

- Eskulanak.

- Irteerak.

Eskatzea librea da eta eskatzerakoan beti dago esperantza...

*Klarion taldea*



**Construcciones ARRASATE S. L.**

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
**ARRASATE**

Fernando Aguriondo,  
AUKEAko ordezkaria

**F**ernandok duela bi urte erosi zuen bere autoa, "auto txikia, bizkor gidatzea ez bait zait gustatzen". Bere burua gidari txartzat dauka, "badira 22 urte gidatzeko karneta daukadala eta oraindik aparkatu ezinik ibiltzen naiz". Gidari txarra izanda ere, Fernandok ez du sekula istripurik izan, "irratia entzunaz gidatzen dut, eta zeharo despistatua naiz. Eskerrak erreflejo onak ditudanari...". Nahiz eta gidatzea ez gustatu, pozik dago autoarekin "Bi urtetan pintxazorik ere ez dut izan, eta hori ez dudala bat ere zaintzen".

## Fernando Aguriondo



# O PARI-DENDA JOKO DIDAKTIKOAK

Etxe hauekin egiten  
dugu lan:

Eolo-Gayla, Didacticos  
del Sur, Lado, Fontsero-  
Coma, Goula, Fisher  
Price, Constansó, Akros,  
JT, Jokoak, James  
Hamilton Limited,  
Puzzleak, Rosal...

Kometak, Puzzleak,  
Umeentzako pinturak...



# kumu

Otalora Kalea, Tfnoa: 79 75 43 ARRASATE

# Omenaldia Gatzagan

**U**rriko igandean batu ginen Uri-barrin. Guztira bost lagun, argazkian ikusi ahal izango duzuen bezala. Eguraldi epela egiten zuen; Olandixoko aldatzetatik gora, betiko bide zaharretik Untzilla aldera jo genuen. Untzillatik Kurtzeta aldera eta lehenxeago, San Adrian Ermitatik gora, ezkerretara hartu genuen Gatzikarroko baserriraino (argazkian zati txikia ikusten da). Gatzikarro baserritik egundoko aldapaz, Marin auzora heldu ginen. Inguruetan makina bat ehiztari, hego haize zalapartatsua zain, zer gertatuko zain. Gure taldeak lasai asko Maulandaraino jeitsi eta on-



Lagun taldea

doren, Gatzagako Dorletara jo genuen. Bertan lagun eta ezagun ugari ikusi genuen, salda beroa edaten. Arrasate, Oñati, Bergara, Aretxabale-



Bizikletari ugari bildu zen Gatzagara

ta, Eskoriatza, Gatzaga, Aramaixo... alde guztietako baten bat. Argazkian agertzen den legez, jende ugari eta ezaguna. Tartean bidetik "at

geratu" diren lagun biren omenaldi bikaina: ostean denok elkarrekin karabanan Arrasateraino. Datorrenean gehiexeago.


**Pentsa dezakezun jostailu erakusketa handiena daukagu zure zain.**

**Jostailu merkeenak hemen aurkituko dituzu**

**Eco Gasteiz** -en

BAZKALORDUAN EZ DUGU IXTEN

**Cercas bajas 34, GASTEIZ**



**77 08 15**

**ANAI JATETXEA**



**BEREZITASUNAK**

- Bixugua arranbarrilan
- Legatza
- Txuletak
- Legatza-kokotxak

Nardeaga 32,  
Tfnoa: 945 - 44 51 01 ARAMAIO (Araba)



**ERAÑA AHOLKULARITZA**

**OROTARAKO ASEGURUAK**

Kontzezino kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE





## BIDASOAKO PORTZELANAK

Arrasateko festak direla eta, bere produktuak ikustera gonbidatzen zaitu. Museoko piezak, ontziteria eta pitxarrak eta bere kolezioaren zati bat Banco Bilbao

Vizcayan (B.B.V.), Viteri kaleko 2.ean.

Ordutegia: 12etatik 14etara eta 5etatik 8etara.

Abenduaren 21etik 30era.

Aste gazte

Estatu espainolean, ia 6.000 neska gazte gelditzen dira haurdun urtero, eta beste 1.000k abortatu egiten dute. Nerabeen arteko ihaurdunaldi-indizerik handienetarikoa Europa mailan.

Adituen eritziz, datu hauek agerian uzten dituzte sexualitate-heziketaren hutsuneak eta gazteen arteko antisorgailuei buruzko informazio eza.

Cejota, EHI aldizkaria.

Ikastaroak

• Sexualitate Ikastaroa. 15 urtetik gorako gazteei zuzendua. Iraupena: urtarril-martxora arte, astean 2 ordu. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Matrikula: 500 pta. Plaza mugatuak.

• Astialdiko monitoreei zuzendutako ikastaro monografikoak (Bilbon, asteburuetan): Talde dinamika eta bilerak (martxoak 2-3),

Kolonia eta kanpamenduak (maiatzean), Sexualitatea eta elkar-heziketa (martxoan), Astialdiko teknikak (otsailan).

Bekak

• Belgikan goi mailako espezializazio ikasketak burutzeko bekak. Eskatzailak: Ingeles, frantsez edo neelandiar hizkuntzak menperatzen dituzten 35 urtetik beherako lizentziatuak. 9 hilabeteko iraupena. Epea: 91-1-7

• Finlandian postgradu edo ikerketa-ikasketak burutzeko bekak. Eskatzailak: postgraduatuak eta karrerako azken mailetakoa ikasleak. 9 hilabeteko iraupena. Epea: 91-1-7

• Frantsez hizkuntza, literatura, musika, arte plastiko eta eszenikoei buruzko ikastaroetan parte hartzeko bekak. Laguntza: matrikula, alojamendua, aseguru eta bidailaguntza. Epea: 91-1-15

Lehiaketak

• "Cafe Gijon" Nobela Saria. Gazteleraz, 200 eta 300 orri bitarteko lanak. Dotazioa: 2.000.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: otsailaren 15a.

• "Ciudad de Valladolid" Nobela Laburreko XXXVIII. Ateneo Saria. Gazteleraz, gai librekoa. Lanek 75 eta 100 orri bitartekoak izan behar dute. Saria: lanaren argitarapena eta 1.000.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduaren 31a.

• "Jaen" Kondaketa-Lehiaketa. Gazteleraz, gai librekoa. Lanek 20 eta 50 orri bitartekoak izan behar dute. Saria: 300.000 pta. eta 100.000 pezetako bi akzesit. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduaren 31a.

Dirulaguntzak

• Hemendik aurrera, Udaletik dirulaguntza jasotzen duten gazte-taldeek ar-

gitaratutako ohar nahiz karatelek euskara hutsean edo euskara eta gazteleraz, euskarari lehentasuna emanez, izan beharko dute.

• Besaide-AUKEAk antolatutako eski-kanpainaren barruan, asteburuetako irteeretan, ikasten edo langabezian dauden gazteei %50eko deskontua egingo zaie eski-klaseen prezioan. Interesatuak ikasten edo langabezian daudela egiaztatatu beharko dute Gazteen-tzako Informazio Bulegoan.

*Oharra:* Gazteen Informazio Bulegoak oporrak hartuko ditu urtarriaren 7ra arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,  
LABORATEGIA**

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebiosa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxebehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

**Dultzearen  
autozerbitzua**



Z  
O  
R  
I  
O  
N  
A  
K

U  
R  
T  
E  
B  
E  
R  
R  
I  
O  
N

## ETXEBIZITZAK

- Seme-alabarik gabeko bikoteak etxebizitza alokatu nahiluke. Dei egin 79 88 20 telefonora
- Etxebizitza konpartitu baten gela alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.
- Etxebizitza salgai, Loramendi 6-14.A . amueblatua. Tfnoa.: 79 98 03 Arratsalde edo gauz.
- Etxebizitza alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean. Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.
- Merkatala lokala salgai. 119 metro karratu, 60.000 pta/metro karratuko. Helbidea JL. Iñarra pasealekua, 26. Tfnoak.: 79 99 81 / 79 92 43.
- Etxebizitza salgai Aranbarri kalean, Musakolan. Dei egin 79 73 00 tfnora.
- Etxebizitza salgai Oñati kalean. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpora begira. Tfnoa: 79 94 51, gaueko 9etatik 11ak bitartean.
- Etxebizitza salgai Santamainan. Hiru gela, bainugela, sukaldea, jangela eta trastelekua. Guztiz kanpora begira. Dei egin 79 58 05 telefonora.
- Neska behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera bitartean gaueko 9.00etatik aurrera 79 54 61 tfnora.

## LANA

- IEE I, II eta OHO ko klaseak ematen ditut larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki
- Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73

- OHoko klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnoetara.
- Fisika klaseak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95
- Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. Tfnoa: 79 62 89
- Andrak etxeko lanak egingo lituzke orduka. Tfnoa: 79 15 56

## SALEROSKETAK

- Pastor aleman txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezibar.
- Musika ekipoa salgai, prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.
- MSX ordenadore jokua salgai. Zinta bakarra. Erbe software. Taipan jokoak. Deitu 79 15 96 telefonora.
- FAGGIN errepideko bizikleta urdina salgai. Neurria 53. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepideko bizikleta urdina salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepideko bizikleta beltza salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepideko bizikleta gorria/txuria/
- Klarineta erosiko nuke. Tfnoa: 78 16 19. Maritere

- Larruzko botak 42 zenbakia, Thinsulate Vibram eta altzairuzko plantila oso ondo zainduak. 7.000 pta.tan salgai. Kranpoiak lotura sarekin 12 puntazkoak ia berriak, 5.000 pta.tan. Mikel, ostegunetik astelehenera gauz. Tfnoa: 79 53 40
- Zibro Kamin RCA-86B berogailu japoniarra bi urtekoa eta egoera onean salgai. Dei egin 79 62 39 tfnora, 12.00etatik 14.00etara edo 17.00etatik 19.00ak bitartean. Mila
- Orbea Nordkapp markako mountain bike bizikleta oso egoera onean salgai. Prezioa: 55.000 pta. Tfnoak: 77 05 00 eta 79 02 11 8.30etatik 12.30etara eta 14.30etatik 18.30etara. Antonio
- Mercedes 409 D furgoneta salgai. Dei egin 79 27 19 tfnora. eguerdiko 1.00etik 3.00etara edo 8.00etatik 10.00etara.
- Antezko jaka flekoduna daukat salgai. Berria. Tfnoa: 76 50 58. Beatrizez galdetu.
- Yamaha 250 SR motorra salgai. Dei egin 79 63 89 tfnora.

## DENETARIK

- Eraikitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 79 25 86 tfnora.
- Astelehen goizean Donostiara joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei egin 79 13 83 tfnoa. Arrasate.
- New York-etik gure Arrasateko lagunari musu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest. Harrematarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.



## ARRASATEN HILDAKOAK



Rodriguez Sanchez Eulogio,  
Abenduaren 12an. 78 urte.  
Rodriguez Gomez Jose,  
Abenduaren 15ean. 40 urte.  
Gala Cuadrado Jose,  
Abenduaren 16an. 75 urte.  
Jauregiarzo Arrizabalaga Ignazio,  
Abenduaren 16an. 80 urte.  
Sedano Sanchez Fabian,  
Abenduaren 18an. 78 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Francisco Armiño, Itxaso tabernakoa.

- Tutea ala musa? Musa.
- Kafea, hutsa ala ebakia? Beti hutsa.
- Tabernan, musika ala telebista? Telebista nahiago dut.
- Tragaperrak ala egunkaria? Niretzat tragaperrak hobeto, baina bezeroentzat seguraski egunkaria.
- Barra kanpoan ala barruan? Denek bezala, kanpoan egotea nahiago dut.
- Txikiteoa ala kafe ordua? Kafe ordua, giroa hobea izaten da.
- Mendia ala hondartza? Igerian egitea gustatzen zaidanez, hondartza.
- Abestu ala dantza egin? Ez bata eta ez bestea, baina aukeratzekotan, dantza egitea.
- Emakumezkoen tertulia ala gizonetzkoena? Berdin dit batzuk zein besteekin.
- Pintxoak ala ogitartekoak? Prestatzeko pintxoak hobe, jateko ogitartekoak nahiago.
- Txerri-txuletak ala behi-txuletak? Behi txuletak, noski.
- Negua ala uda? Negua nahiago dut, beroak leher eginda uzten nau eta.
- Gauzak esateko, aurrez aurre ala telefonoz? Esatekoa aurrez aurre esatea gustatzen zait.
- Pantoja ala Lola Flores? Beno, Pantoja, Lola Flores baino hobeto dago eta.
- Errealala ala Bilbo? Nirea Madrileko erreala da, baina bi horien artean Errealala nahiago.
- Bezero isilak ala berritsuak? Isilak nahiago ditut
- Gaupasa egin ala 10 orduz lo egin? Lehen gaupasa egitea, baina orain, zahartuta nagoenez, hamar ordu lo egitea nahiago.



# Zelebrequerixak

**B** adakizue guardazibil izateko oso examina gogorrek eskatzen dituela eta kultura haundixa bihar dala. Akademixan urtebete inguru ikasten jardun ondoren presentau, da gure Morales esaminetara, bibotedun kapitanez eta tenientez osatutako tribunalan aurrrera.

- Aber, lelengo prenguntia: zenbat gradu bihar dittu urak irakitten haste-ko?

- 90 gradu! -kontestau eban Mora-les-ek harro harro.

- Ez gizona ez, 100 gradu bihar dittu urak irakitteko.

- Ai, barkatu, barkatu, konfundidu egin naiz; irakitteko 90 gradu bihar dit- tuana angulu rektua da.



**T** xikiteuan gabitzenian gustora har- tzen da azeituna platerkadatxo bat, baiña beti sortzen dan problemia, eta haundixa gaiñera, beti azeituna bat so- bratzen dala platertxo hondarrian. Mundu guztian problemia izaten jarrai- tzen dau, baiña Plazentzian aspaldi to- pau zotsen soluziñua. Hola eskatzen dittue azeitunok:

- Hi, etaraidak platerkada bat azeitu- na, baiña bat gutxiao ipiñi, e.



**B** atek baiño gehixaok prenguntauko zotsan bere buruai zegatik txaku- rrak arbolian kontra hankia jasota eitten dabent txixa. Ba itxuria danez lenengo txakurra gure moduan aurrerabegira eitten hasi zan bai, eta arbolia gaiñera jausi jakon. Harrezkero, amigo,

Juan Martin Elexpuru

comercial  
san juan

Garibal 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**KILI-KOLO**  
Ferreries 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE



Inca futbol taldea, 1926

**A**sko izan dira Mondragoek eman dituen futbol zaleak eta futbolariak ere, Britainia Haundian jokatzen zen *football* hura geure artean zabaltzen hasi zenetik. Ezagunenek Mondran jokatu izan dute, baina beti egon dira talde

txikiagoak, askotan geroko figuren benetako tranpolinak izan direnak. Gaur egun Zaldibarko Futbito Txapelketan gertatzen den bezala, 1926. inguruan talde txiki asko zegoen, *Fortuna* edo argazkiko *Inca* bezalakoak.

Argazkiko gehienak gaztetxoak ziren, 16-18 urte bitartekoak. Gaur Gelmak duen aparkalekuan zegoen futbol zelaia. Atzekaldean Etxe


Txikiak ikus daitezke. Ezkerretik hasita, zutik, Antonio Altube, Simon Axpe, Olazagoitia, Joxe Ubago, «Txotxo», Pedro Atxa, Simon Zaitegi, «Perder» eta Armerngou. Belauniko daudenak ez dakigu nortzuk diren.

**PUB  
HAIZEA**



**ENARA**  
OSAGARRIAK


Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



# SAN VIATOR IKASTOLA



Kamararen aurrean  
 dut nire burua  
 eta esku artean  
 hire liburua  
 Ze iruditzen zaizu  
 zure ingurua  
 hemengo kanal baten  
 daukat helburua.



Eman denei eskua  
 izan on ta esti  
 helan gabon eguna  
 izango da beti.  
 Mazapan ta txanpaina  
 turroi eta gutti,  
 horrela izango da  
 Gabon egun bizi.




Gabonak etortzean  
 gaude kolerietan,  
 jende guttia dago  
 beren liritetan  
 jende ugari dago  
 beti algaratan,  
 baina beti berala  
 norbait dau triste

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
 EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
 HELBIDEA.....  
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



**77 08 15**

# Joku zikina da bizitza

**E**zer sakon horren atzean,  
ezer topatzekotan,  
ezerk ez du zentzurik,  
ezer ez da zuzena.  
Ezpata zorrotza.

Tertziopelo gorriaren lilura,  
argazki zaharren historia,  
hego haizearen laztana,  
gazte amodioak,  
bizitza,  
barrezka.

Hurrengo eszena,  
materialismo uholdea,  
laudorio absurdoak,  
gezurrontzi fardelak,  
jerarkia izkutuak...

Tira, barre egin behar.  
Pailazoa da,  
benetan,  
bizitza.

*Itziar Bartolome*

Lan honek AEDk antolatutako Arrasate-90 Poesia Saria irabazi du 14-18 urte bitarteko mailan.

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Galbra Dieritzia & Arasate

✓ **XABIER EGUZKITZEREN BELARRITAKOA:** Orain dela gutxi konturatu nintzen Xabier Eguzkitze bertsolari-esatariak belarritakoa zeramala ezkerreko belarrarian, Gaur Egun albistegiko kirolen berri eman bitartean. Xabier esatari ona da nire ustez, planta ona dauka telebistarako eta belarritakoak ez dio bat ere kalterik egiten.

Bada beste zerbait mesede handirik egingo ez dionik, ordea, aldatzen ez badu. Badakizue denboraldi honetako Gaur Egunak hiru esatarik aurkezten dituztela: bi era guztietako albisteetarako eta hirugarrena kirolen berri emateko. Noiz edo noiz, albiste multzo batekin amaitzen dutenean, kamara batek hiru aurkezleak batera erakusten ditu, plano orokorrean. Aurreko egun batean, horietako plano ireki batean, non harrapatzen duen kamarak Xabier Eguzkitze bere aulkian erdi etzanda, eta konturatuta pantailan agertzen ari zela, disimuloz, tente jarri nahian. Kamarak ez zion barkatu eta denon begi bistan gertatu zen.

Belarritakoak daramanaren nortasuna indar dezakeen moduan, kamara aurreko horrelako egoerek kalte baino ez diote egiten. Badirudi han dagoena aspertuta dagoela, lan egiteko gogo barik... en fin, itxura narrasa ematen diotela.

✓ **RADIO EUSKADIKO KIROL SAIOAK:** Hiruzpalau bider gau partean Patxi Alonsok kirolei buruz Bilboko Radio Euskadin egiten duen saioa entzun izan dut eta, egia esan, ez da nire gustokoa. Berba asko egiten du, ikaragarriko abiadan, pontifikatu ere bai, mundu guztia epaituz, elkarrizketatzen duena losintxatu eta aipatzen duena larrutuz. Esan didatenez, Bilbo inguruan sekulako arrakasta omen du. Baliteke. Estilo kontua askotan.

Antz txikia du Esukadi Irratiko kirol esatariekin, Iñaki Elorza, Iñigo Aiestaran eta halakoekin. Hauen estiloa gogokoagoa dut. Hotzagoak dira, neurtuagoak eta, nire iduriko, inpartzialagoak. Kasualitatez, batzuk bizkaitarrak dira eta gupuzkoarrak besteak, baina horrek ez du zerikusirik.

✓ **LAURA PALMERREN HILTZAILEA:** *Twin Peaks* seriearekin ari naiz berriro. Aurreko batean Tele 5ren azken kapituluak ez zigula hiltzailea nor zen esaten niotsuen eta bigarren emanaldiaren zain geratzen ginela. Hau heldu baino denbora dexente lehenago, asteburu honetan, zenbait komunikabidek, EEBBetan filme honen bukaera eman dutela aprobetxatuz, hitzailearen izena eman dute. McLuhan-en txabola elektronikoaren desabantailak. Ezin isilik egon. Orain badakit nork hil zuen Laura Palmer, baina ez dit inporta. Inportanteagoa zen filmearen jitea. Horren zain gelditzen naiz.

Joxe Aranzabal

## Gusto baduzu

### ☐ FUNTZIOA

Xabier eta Piter umoristek programa berezia prestatu dute Gabon gauerako. Musika eta umorezko saltzaz osatuko dute programa. Musikari dagokionez, besteak beste Gontzal Mendibil, Errobi, Tapia eta Leturia, etab. izango dira bertan. Umorea lantzeko Xabier eta Piterrek sortutako hainbat pertsonaia: Teo eta Txarles, Txakon eta Jilostio, Kurro eta Manue.... Astelehena, gaueko 22.00etan.

### ☐ ATRILA: PAVAROTTI

Luciano Pavarotti italiar tenore ospetsuaren zenbait Gabon kanta izango dira entzungai saio honetan. Musikazaleek, Pavarottik Montrealeko Notre-Dame katedraletik abestutako kantak entzun ahal izango dituzte. Igan-dea, eguerdiko 13.05etan.

### ☐ "CASANOVA"

Federico Fellinik zuzendutako filmea. Pelikula honek Giacomo Casanovak Bohemiako Duxen gazteluaren liburuzain zaharra, bizitzan zehar bizi dituen abenturak eta amodioko istorioak gogoratzen ditu. Bakarrik eta zaharkiturik dagoela, gaztaro-ko bidaien oroimenak burura datozkio. Asteazkena, gaueko 21.20etan.

## elkarrizketak

### Bideoak

#### ELKARRIZKETAK 21-26

HABEk euskaraz ikasten ari direnentzat ateratzen dituzten bideoen azkena, sei elkarrizketaz osatua. Etienne Goity, Laurent Indaburu, Antonio Irazoki, Dionisio Unanua, Xabier Larralde, eta Federiko Galardi dira Joserra Gartzia eta Pello M. Zabaleta kazetariak elkarrizketatzen dituzten pertsonaia.

### Ostadar irratia

#### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

#### ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ii* (Haur kantak)

#### OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM





**O**stiraleko *Musikantoi* berezia da. **Ruper Ordorika** izan zen ATBn, "Ez da posible" bere azken diskoa aurkeztuz. Ruperrek sekulako primizia ekarri zuen, izan ere, beste inon agertu aurretik, disko horri buruzko bideoa ere erakutsi bait zuen. Laugarren disko hau Euskal Herritik hurbil grabatu du, Frantziako Landetan. Argazkian Ruper erdian, Patxi Montero eta Mikel Irizarren artean. ATB Ostiralean 20.50ean eta larunbat eguerdian.



### Santamasak 90 ATBn

Iuntzeko 8.00ak ordu aproposa da etxeko epelean Santo Tomas egunean gertatutakoak zuen etxeetako pantailetan ikusteko. Talogileak, baserritar eta ganaduzaleak, buzingile eta pitxi-pitxi saltzaileak, aizkolari eta harrijasotzaileekin batera ATBren pantailan gonbidatu bereziak izango dira larunbat honetako programa berezian.

## asteko

### PROGRAMAZIOA

#### 24 ASTELEHENA

Ez dago programaziorik.

#### 25 ASTEARTEA

Ez dago programaziorik.

#### 26 ASTEAZKENA

18.30 **Teletestua**  
19.30 **Bapirulauke**.  
Umezaintzan grabatua.  
20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 **Zenbat buru**, hainbat aburu, hainbat aburu, mahaingurua. J.M. Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Gabonak.  
**Berriak** (errepikaldia)

#### 27 OSTEGUNA

11.00 **Teletestua**  
12.00 **Bapirulauke**. (bezperakoa)  
12.30 **Berriak**. (bezperakoa)  
12.50 **Zenbat buru**, hainbat aburu (bezperakoa)  
13.45 **Bapirulauke** (bezperakoa).

#### 28 OSTIRALA

19.00 **Teletestua**  
20.00 **Berriak**. Begoña Garaik aurkeztua.  
20.20 **Erretratoa**, J.R. Elortzak zuzendua.  
Gonbidatua: Inozentzi Kabijertua, Katzo baserrikoa  
20.50 **Musikantoi**: Patxi, Mikel, Asier eta Pepek egina.  
**Berriak** (errepikaldia)

#### 29 LARUNBATA

11.00 **Teletestua**  
12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)  
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



## SUKALDIAK

# eya

Zure etxebizitzarako apainketa-  
proiektuak egiten ditugu

Sukalde eta bainugelako altzaritan  
espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Kanpoko familiakideren bat bisitatzea suerta liteke oporretan edo lan eskakizuna dela medio, egin dezakezun bidaiaren batean. Urte osoan zuhur erabili dituzun finantzak urte amaiera honetan emango dizkizute etekinak.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Urte amaiera izango da Leo bidaia eta abentura berriei ekiteko momentu aproposa. Odolbero egongo zara eta maitasuna izango da gehiegizko energiak erretzeko modurik egokiena, bestela oldakor egotea gerta bait liteke.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Urte amaiera arteko ahalegina eskatuko dizu lanak; rutina eta etengabeko zehaztasuna nagusituko dira zuregan ordurarte. Denbora pasa ez ibiltzen eta energiak alperrik ez erretzen saiatu, egoera honetatik lehenbailehen ateratzeko.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Ezusteko diru-sarreraren bat etortzea suerta liteke Tauro. Kanpora bidaiaren bat egin beharko bazenu, argi ibiltzea komeniko litzaizuke. Maitasunean nolabaiteko oreka lortuko duzu azkenean, baina finantzei dagokionez zuhur jokatu beharko.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Burua argi-argi izango duzu urte amaiera honetan; beraz aurrerabidea lortzeko eta barne ezaguketa egiteko gaietan aritzea, primeran etorriko zaizu. Maitagarri egongo zara alpatutakoa eginez gero eta ez zara ez, lagun faltan izango.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra


Etorrizunari begira onuragarria izango zaizun erromantze interesgarriren bat bizi izatea suerta liteke Capri. Aurki dator eguzkia zure esparrura eta zure alde izango duzu gai oro; beraz, pronto egon zaitez edozeri ekiteko.



## GEMINI

Malatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Familiarteko harremanetan ezin ulertuetan murgiltzen hasia zara berriz ere; zeu izan beharko egoera horren baretzaile zeu izan bait zara supztaile. Finantzei dagokionez, daudenetan utzi beharko, ez bait zara supztaile.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Lanerako behar beharrezkoak izango dituzun energiak ez litzaizuke komeniko parrandan erretzea, ez bait daukazu soberakinik. Ia ahaztuta eta guzti eta gaur egun lagungarri izango zaizun diru-sarreraren bat suerta liteke.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Egunerokotasunetik alde egiteko aspaldiko lagunren bati bisitatzea egiteko garai aproposa datorrena Acuario. Primeran etorriko litzaizuke aurrerabidea eta benetan hunkitzen zaituzten gaietan sakontzea besteek zure nahiak ondo ulertzeko.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Kilikagarri izango den eskaintzaren bat jasotzea suerta liteke lan arloan. Badakizu gastu handiko garaia dela datorrena eta zure finantzak ez daude horretarako. Beraz, daukazunarekin moldatu beharko, gero ez damutzeko.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Zuk zeuk argitu beharko zenuke, azken finean kaltetu bakarria zeu izango zarelako. Egonarria eta ulergarritasuna beharrezkoak dira eguneroko harremanei aurre egiteko, ez haserretu!



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Azkenean lortu duzu hainbeste denboran itxaron izan duzun erromantze hori egia bihurtzea; finkoa izan liteke gainera. Lan arloan aurrerabidea eskainiko dizute eta familiakideek horretarako animoak emango dizkizute ohi ez bezala.

# Arrasatek badu urtekaria.

**B**ertan, 100 mondragoetar ezagun nortzuk diren ikusi ahal izango duzu, aurtengo berririk garrantzitsuenak, espezialisten analisiak, inkestak, txutxumutxuak, argazki mordoa... eta askoz gehiago.

**1.000 pta.**



**EROS EZAZU  
AGORTU  
BAINO LEHEN!**



**ARRASATE PRESS: MOLDEAK APURTZEN DITUGU**

# IRUDI BERRIA



# SONY®

BANATZAILE  
OFIZIALA

*Jose Aranzabal*

Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

# OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Dieselaz, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko duzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta. tatik\*

\*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearetarako)  
Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne.



**EZAGUTU EZAZU**

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria

Kontzesionari Ofizialak

**OPEL**   
Hobeak esperentziaz

